



ARNAGAKO ADIERAZPENA

Orain ia 7 urte etorri ginen, Donostiara, Europako azken gatazka armatua gainditzeko aukera erreal bat zegoela egiazki sinetsita.

Une historiko horretan dei bat luzatu genion alde orori bide baketsu eta demokratikoekin bat egiteko bai eta desberdintasunak elkarrizketa eta negoziaketaren bidez konpontzeko metodoari atxikitzeko, lurraldean bake justu eta iraunkorra erdietsi zedin.

ETAk gure deiari bere ekinbide armatuaren amaiera behin betikoa jakinaraziz erantzun zion. Orduetik ETA bere hitzari lotu zaio eta ez da biolentzia gehiagorik egon. Iaz haratago joan eta armagabetze osoa burutu zuen. Guk pausu historiko hauek errekonozitzen ditugu bai eta ongi etorri sendoa eman.

Gaur Arnagako Etxera gatoz, Kanbon azken adierazpen historiko bati ongietorria ematera. Atzo, ETAk erakunde izateari utzi diola adierazi zuen. Hau Europa osorako une esanguratsua da kontinenteko azken indar armatuaren amaiera esan nahi baitu.

Aieteko adierazpenetik hona azken zazpi urte hauetan guk egindako bake deiari erantzunez aurrera pausu nabarmenak egon dira Euskal Herrian. Badira Aieten egin genituen dei batzuk ez dutenak erantzunik izan. Guk ETA eta Espainiar Gobernuaren arteko elkarrizketa aholkatu genuen eta hau ez da eman. Baina halere eman dira bakearen aldeko eginahal asko eta asko. Euskal gizarteak, bere gizarte antolakundeek, alderdiek eta erakundeek, ipar zein hego, guztiek egin dute lan bakeak aurrera egin dezan. Guk urte luzeetan Euskal Herria, Espainia zein Frantziako herritarrek zein gobernuek eginiko lana eskertu nahi dugu, bai eta pertsona zein erakunde ezagun zein ezezagun ugarik eginikoa, guztiek gaur lortutakoa lortzeko gogor egin dute lan.

Gai garrantzitsu batzuk oraindik konpondu gabe diraute, hala nola preso direnen edo ihesean diren pertsonen auzia; lurraldeko eguneroko bizitza zein politika osoki normalizatzeko etenik gabeko esfortzuak beharko dira.

Nagusiki egiteke gelditzen dena berradiskidetze prozesua da. Parte hartu dugun gatazketan izan dugun esperientzia dela eta, honek denbora luzea hartzen du. Zauriak sakonak dira. Familiak eta komunitateak banatuta daude. Biktima guztiak bereizkeriarik gabe aitortu eta laguntzeko lan egin behar da. Honek, alde guztiek iraganarekin zintzotasunez jokatzeari eskatzen du, bai eta zauriak sendatzeko, bai komunitate partekatua berreraikitze eskuzabaltasunez jardutera. ETAk eragindako mina aitortuz eta etorkizunari



begira egin beharreko berradiskidetze lana babestuz berriki egindako adierazpenari ongi etorria ematen diogu. Alde guztiek daukate oraindik lan handia egiteko. Berradiskidetzera bidean barrena esfortzuek modu arrakastatsuan jarraituko dutela espero dugu eta gure ekarpen berri bat behar dutenen esanetara geratzen gara.

Aieten 2011ean esan bezala, gure iritzian, bakea eraikitzeak elkarrizketa politikoa eskatzen du aktore nagusien artean. Segurtasun zein kartzela neurriekin soilik erantzutea oso gutxitan da arrakastatsua. Bakea ez da zero gehiketa joko bat baizik eta onarpen politiko kontu bat, non bi aldeek beraien helburuak modu baketsuan bide politiko eta demokratikoen bidez erdiestea adosten duten.

Gaurkoa egun ona da Euskal Herriarentzat, Espainiarentzat, Frantziarentzat eta Europa osoarentzat, ospatzeko eguna. Ziur gaude Euskal Herrian, berandu baino goizago eta guztion ahaleginarekin, konponbide oso justu eta iraunkorra lortuko dela. Munduko beste eremu batzuetan irudiz konpondu ezinako gatazkei aurre egiten dietenei ere itxaropena emango diela espero dugu.